

# FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure empresa aurrera eramateko eta kalitaterik hobereneko produktuak eskaintzeko, inguruko baliabideak erabiliko ditugu; km 0-koak eta produktu ekologikoak batez ere.

Guk bereziki guzti horrek edukitzeaz gain, 10 minutura ogia egiten duten enpresez eta gure portuan arraina saltzen duten arrain-saltzaileez hornituko gara.

Beraz gure funtsezko elkarteak hauek izango lirateke:

- Lea-Artibai baserritarren elkarteak: sasoiko barazkiak eta fruituak eskainiko dizkigute. Urte guztirako erosketak egingo diegu, horrela beraiei uzta ziurtatuko diegu, eta beraiek prezio baxuak eskainiko dizkigute.
- Lekeitioko produktu ekologikoaren Elkartea: era guztietako produktuak erosiko diegu; pasta ekologikoa, yogur naturalak, arroz integrala..eta abar.
- Lekeitioko portuko arrain saltzaileak: eguneroko arrain freskoa erosiko dugu.
- Odriozola Haragitegia: inguruko baserrietako okela erosiko diegu, Eusko Labela ziurtatuta duelako.
- Munitibarreko okindegia: mota guztietako ogiak laba berezi baten egiten ditu. Eta pastelak ere gluten gabekoak, arrautza gabekoak eta irin bereziekin egiten ditu.